



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Bizkaiko Foru Aldundiak hobekuntzak proiektatu dauz La Avanzadan, trafiko pilaketak saihesteko

Bilbon, 2013ko urtarrilaren 25ean

Bizkaiko Foru Aldundia La Avanzadako trafikoa hobetzeko eta ibilgailu gehien dabilen orduetan errepide horrek jasaten dituan trafiko pilaketak saihesteko proiektua prestaten dago. Lehenengo neurrien artean, azpiegitura lan barriak egin behar barik errepidearen ahalmenaren arazoa konpontzeko alternatiba prestaten dabil Foru Aldundia, gaur egun bizi dogun egoera ekonomikoa kontuan izanda, Itziar Garamendik, Herri Lan eta Garraioetako Diputatuak, Batzar Nagusien aurrean gaur jakinarazo dauenez. Diputatuaren erantzuna, Jesús Isasik, Bizkaiko Talde Popularraren Taldeburordeak, errepide horretan “automobil gehieneko orduetan batez be, trafiko densidadeagaitik eta galtzada estua dalako” gertatzen diran trafiko arazoak dirala-ta, egindako galderaren ostean etorri da.

Herri Lan eta Garraioetako Batzordearen aurrean egindako agerpenean Garamendik adierazo dau Foru Aldundiaren proiektua, “La Avanzadatik Txorierrira doazan mobimenduetarako errepideari errei bi jartean zentretan dala, horretarako azpiegitura lan barriak egin behar barik, gaur egun dagozan aukera fisikoakaz”. Azterlan horretan bertan, Erandioko biribilgune zaharretik (Ertzaintzaren komisaldegia parean dagoana) aurrera errepidea hiru erreietik laura zabaltzea aurreikusten da, eta puntu horretatik aurrera errei bitan banatzea, Errontegiraino.

Beste alde batetik, Herri Lan eta Garraioetako Diputatuak, Bildu Taldeak Herri Lan eta Garraioetako Batzordean dauen ordezkariak, Asier Sanzek, egindako hainbat galderari erantzunez, bere Sailak lurraldeko errepide sarea mantentzeko, zabaltzeko eta hobetzeko lanetan egin dauen inbertsino esfortzua azpimarratu dau, beti be segurtasun, irisgarritasun eta mobikortasun erizpideei jarraituz. Bilduko ordezkariak egindako galderak 2012ko Aurrekontu Orokorren Memoriaren Herri Lan eta Garraioetako Sailaren 2013ko Aurrekontuen Memoriaren atal batzuei eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta INTERBIAK Soziedade Publikoak sinatutako hitzarmenean izandako aldaketa bati buruzkoak izan dira.

Inbertsino batzuk, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean egindakoak, adibidez, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP-CTB) funtzionamendua, Bilbobus zerbitzuaren murrizketea eta garraio publikoan txartel bakarra martxan jartzearen atzerapena kritikatu ostean, Bildu Taldeko ordezkariak adierazo dau “iruditzen jaku Sailak arlo horretan aurrera daroazan jarduketak inguruko udalen kolore politikoaren arabera dirala”. Gai horregaz erlazionatuta, “Muxika edo Sopela bezalako udal batzuk, bertako errepideetan gertatzen diran istripuak gitxitzeko, bide segurtasunean eskatutako hobekuntzen egoerari” buruz galdetu deutso Sanzek diputatuari “aitatutako errepideetako istripuak kostu sozial handikoak diralako”.

Bere erantzunean Itziar Garamendik azpimarratu dauenez, “Foru Aldundiak 2006 eta 2010 urteen artean eregi dituan errepideko azpiegiturei eta Lurraldeko Garraio Publikoko sareari esker, bizkaitarrek 3,6 milioi ordu aurreztu dabez euren joan-etorrietan, bost urterik behin egiten dan azterlanak erakutsi dauenez. Denpora hori diru bihurtzen badogu, epealdi horretan aurreztutako diru kopurua 57,5 milioi eurokoa izan da”. Azpimarratu dau, baita be, “Bizkaiko mobikortasunaren kostua



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Autonomia Erkidegoko gainerako lurraldeetako baina txikiagoa dala, garraio publikoko sarea zabaltzeari esker familia unidade bakotxerako behar dan ibilgailu kopurua gitxitu egin dalako”.

Foru Diputatuak 2006-2010 epealdian egindako 31 azpiegitura proiektu aitatu ditu. Horreen artean dagoz Cadaguako igarobidea, Ballontiko ardatza eta Igorreko eta Lekeitioko saihesbideak. Euzko Abertzaleak Taldearen Herri Lan eta Garraioetako batzordeko ordezkariak Metropolariaren Hegoaldeko Saihesbidearen erabilgarritasuna defendidu dau, bere erabilereak “Foru Aldundiak hasieran euki ebazan itxaropenak ez dituala beteten” onartu arren. Ezkerraldean bizi garan guztiok azken urteetan jasan doguzan trafiko pilaketak konpontzeko oso alternatiba baliagarria da”, esan dau.

Batzorde berean, Bildu Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bati buruz eztabaidatu dabe Taldeek. Sopelako udalerritik igaroten diran BI-634, BI-2122 eta BI-3214 foru-errepideetako konponketa, irisgarritasun eta mobikortasun neurriak hartzearen gainekoa izan da Proposamena. Izan be, azken urteetan automobiler hainbat oinezko harrapatu dabez errepide horreetan, eta persona bat hil da. Eztabaida, errepide horreen titulartasunari eta eskumenei buruzkoa izan da, baina Talde guztiak ados jarri dira bertan gertatzen diran bide segurtasun arazoak konpontzeko neurriak ahalbait arinen hartu behar dirala esatean. Azkenean, Bildu Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamenari ezezkoa emon jako, Euzko Abertzaleak Taldearen kontrako 6 botoakaz. Bildu Taldeko eta Socialistas Vascos Taldeko ordezkariak proposamenaren alde bozkatu dabe, eta Bizkaiko Talde Popularreko kide biak abstenitu egin dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

La Diputación Foral de Bizkaia proyecta mejoras en La Avanzada para evitar las congestiones de tráfico

Bilbao, a 25 de enero de 2013

La Diputación Foral de Bizkaia está preparando un proyecto para mejorar el tráfico en La Avanzada y evitar las congestiones que sufre esta carretera en horas punta. Entre las primeras medidas, se está elaborando una alternativa de mejora que pueda resolver la capacidad del vial sin tener que realizar nuevas obras de infraestructura, de acuerdo con la situación económica actual, según ha informado hoy en Juntas Generales la Diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, en respuesta a una pregunta del portavoz suplente del Grupo Popular Vizcaíno, Jesús Isasi, relativa a los problemas de tráfico en dicha carretera, “sobre todo en horas punta y derivados de la densidad del mismo y la estrechez de la calzada”.

Garamendi ha señalado en la Comisión de Obras Públicas y Transporte que el proyecto de la Diputación se centra en intentar dotar de dos carriles el vial para los movimientos desde La Avanzada hacia el Txorierrri, sin tener que realizar nuevas obras de infraestructura y aprovechando las posibilidades físicas actuales”. El estudio contemplará la ampliación de tres carriles a cuatro a partir de la antigua rotonda de Erandio (a la altura de la comisaría de la Ertzaintza) y, desde ese punto, la bifurcación de dos carriles hacia Rontegi.

Por otro lado, la titular de Obras Públicas y Transporte ha destacado el esfuerzo inversor de su Departamento en el mantenimiento, ampliación y mejora de la red de carreteras del territorio, siguiendo criterios de seguridad, accesibilidad y movilidad, en respuesta a diferentes cuestiones planteadas por el portavoz del Grupo Bildu en la Comisión de Obras Públicas y Transportes, Asier Sanz, relacionadas con varios apartados de la Memoria de los Presupuestos Generales de 2012, de la Memoria de los Presupuestos del Departamento de Obras Públicas y Transportes del año 2013, así como de una modificación del Convenio suscrito por la Diputación Foral de Bizkaia y la Sociedad Pública INTERBIAK.

Tras criticar algunas inversiones como las realizadas en la Variante Sur Metropolitana, el funcionamiento del Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB), la reducción del servicio de Bilbobus y el retraso en la implantación del billete único en el transporte público, el portavoz del Grupo Bildu ha señalado que “da la impresión que las actuaciones del Departamento en este ámbito dependen ‘del color político’ de los ayuntamientos del territorio”. En este sentido, Sanz ha preguntado a la Diputada foral sobre “la situación de las mejoras en la seguridad vial demandadas por algunos Ayuntamientos, como Muxika o Sopelana, de cara a reducir los accidentes en ambos viales, dado el gran coste social que supone la accidentalidad en los tramos mencionados”.

En su respuesta, Itziar Garamendi ha destacado que “las infraestructuras viarias que ha construido la Diputación entre los años 2006 y 2010 y la red de Transporte Público del Territorio han permitido a los vizcaínos ahorrarse 3,6 millones de horas en desplazamientos, según un estudio quinquenal. Traducido este tiempo a dinero, el ahorro ha sido de 57,5 millones de euros en ese período”. También ha subrayado que “el coste de la movilidad es menor en Bizkaia que en el resto de territorios de la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Comunidad Autónoma, ya que se han reducido el número de vehículos necesarios por unidad familiar gracias a la extensión de la red de transporte público”.

La Diputada Foral ha enumerado un total de 31 proyectos de infraestructuras realizados durante ese período 2006-2010, entre los que se encuentran el Corredor del Kadagua, el eje de Ballonti y las variantes de Igorre y Lekeitio. Por su parte, el portavoz del Grupo Nacionalistas Vascos en la Comisión de Obras Públicas y Transportes, ha defendido la utilidad de la Variante Sur Metropolitana, a pesar de reconocer que “su uso no cumple las expectativas iniciales de la Diputación Foral”. “Es una alternativa muy válida para solucionar los atascos en la A-8 que todos los que vivimos en Ezkerraldea hemos sufrido durante años”, ha asegurado.

En la misma comisión, los grupos han debatido una Proposición No de Norma presentada también por el Grupo Bildu, relativa a la adopción de medidas de mejora, accesibilidad y movilidad en las carreteras forales BI-634, BI-2122 y BI-3214 a su paso por el municipio de Sopelana, y que en los últimos años han sido escenario de varios atropellos de peatones, con el trágico balance de una persona fallecida. El debate se ha centrado sobre la titularidad y las competencias de dichos viales, aunque todos los grupos han coincidido en la necesidad de adoptar medidas urgentes para solucionar los problemas de seguridad vial en los mismos. Finalmente, la Proposición No de Norma presentada por el Grupo Bildu ha sido rechazada con los 6 votos en contra del Grupo Nacionalistas Vascos. Los representantes del Grupo Bildu y los del Grupo Socialistas Vascos han votado a favor de la misma, mientras que los 2 miembros del Grupo Popular Vizcaíno se han abstenido.